

2014ko urtarrila



51 egunez egun

Beasaingo udal aldizkaria

beasain

Hilaren 29an aurkeztuko da herritarrek Errekarterako landutako proposamena

Herritarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko ondoren, Errekarte eremuaren proiektu berria zehazten ari da Beasaingo Udala. Ahalik eta etxebizitza gutxien eraikitzea da herritarrek egindako proposamena.

Beasaingo Udalak herritarrekin batera aurrera eramandako Errekarte eremuaren inguruko parte hartze prozesua bukatzeaz dago. Urtarrilaren 29an egingo dute laugarren eta azken bilera, 19:00etan, Igartzako jauregian. Herritarren ekarpenak jasota, hirugarren proiektua ari da moldatzen Udala. Jone Miner arkitektuak zehaztu duenez, «Aurreko legegintzalditik proposamen bat zegoen onartuta, eta oraingo udal gobernu taldeak beste bi proposamen egin ditu, baina, orain beste hirugarren bat ari gara moldatzen, herritarrek Errekarte eremuan, ahalik eta etxebizitza gutxien eraikitzea nahi dutelako».

Arkitektuak zehaztu duenez, «Udalak markatutako ildoekin ados daude herritarrek baina harago joan dira: Errekartereko eremua dagoen bezala uzteko ahallegina egitea eskatu dute». Gainerakoa, Errekarte eta Telleri baserriak mantentzea, Errekarte erreka berreskuratzea eta berdeguneak eta espazio publikoak sortzea izan dira parte hartze prozesuan, Udalaren proposamenari jarraituz, jasotzen diren iritzia. «Asmoa proposamen bat baino gehiago eramatea da, baina ikusi egin behar da, ahal den ala ez, bideragarritasunari ere begiratu behar zaio eta».

Miner arkitektua pozik dago parte hartze prozesuak eman duenarekin: «Jendeak ondo erantzun du, interesa agertu du eta Udalak proposatutakoa ondo ulertu du». Nikola Foronik dinamizatu du parte hartze prozesua eta gustura dago emaitzarekin. «131 lagunek hartu du parte eta oso pozik gaude herritarren jarrerarekin. Irizpide nagusietan, gainera, ados daude Udala eta herritarrek».



Errekartereko parte hartze prozesuan 131 lagunek hartu du parte.

Cronología del proceso de Errekarte

» El Ayuntamiento de Beasain inició en noviembre el procedimiento para modificar el planeamiento vigente para el ámbito Errekarte, atendiendo a un manifiesto deseo vecinal.

» La modificación emprende el camino hacia un urbanismo más sostenible, incidiendo en aspectos como la reducción de la edificabilidad prevista, el incremento de los equipamientos y los espacios públicos y el respeto al patrimonio natural-paisajístico y construido del ámbito.

» La ciudadanía, a través del proceso de participación, ha avalado en general el camino emprendido e incluso ha impulsado una mayor profundización en el mismo, para avanzar más allá de lo propuesto inicialmente por el Ayuntamiento.

» El Ayuntamiento ha recogido las sugerencias de la ciudadanía y el 29 de enero se presentará una nueva propuesta, que podríamos calificar como «propuesta ciudadana para el ámbito de Errekarte», y que el Gobierno municipal se compromete a presentar, defender e impulsar ante el resto de los agentes involucrados.

Herritarrekin eta herritarrentzat osatutako udal aurrekontuak

2014ko udal aurrekontuak pertsonak ditu ardatz, herritarrek herritarrentzat egindako aurrekontua baita. Horrez gain, hiringitza jasangarria eta parte hartzea bermatuko dituen aurrekontuak dira..

Azaroan eta abenduan egindako 2014ko udal aurrekontuak lan-tzeko prozesuak eman ditu bere emaitzak. Herritarrek eta sektore desberdinetako eragileek proposamen ugari egin dituzte, era horretan, Udalaren aurrekontuak aberastuz. Ondorioz, Udal Gobernuaren 2014ko aurrekontuak hiru ardatz ditu. Batetik, pertsonengan oinarritutakoa da; aurrekontu sozialak, gutxien dutenei laguntzak eta zerbitzuak bermatuz. Bigarrenik, hiringitza jasangarria helburu duena eta hirugarrenik, herritarren parte hartzea bermatuko duen aurrekontua da.

Bestalde, Udal Gobernu Taldea gainerako alderdi politikoekin negoziaketetan ari da, 2014ko aurrekontuak aurrera ateratzeko adostasuna lortzea bai-



tu helburu. «Jarrera positiboa jaso dugu orain arte. Saiakera berezia egingo da, beste alderdien ekarpenak udal gobernuaren aurrekontuetan jasotzeko», dio Beasaingo Udaletik.

Aurrekontu parte hartzaileen bidean prozesutik ateratako eta 2014ko udal aurrekontuetan sartuko diren hainbat puntu:

Ongizatea

- » Herritarrei gizarte zerbitzuen berri eman.
- » Adineko pertsonentzako prebentzio-estimulazio tailerrak eta hezkuntza sistematik kanpoko gazteentzako motibazio tailerrak.
- » Pertsona helduentzat akonpainamendu programa.

Hiringitza

- » Nafarroa etorbidea eta Barrendain errotonda, Oriamendi kalea eta jubilatuen egoitzan egokitzapenak egin.
- » Hiringintzako plan orokorraren diagnostikoa egin.
- » Olaraneko prozesua martxan jarri.

Euskara eta Kultura

- » Bertako sormena bultzatu.
- » Elkarten arteko elkarlana eta sare-

zea bultzatu.

- » Kultur elkarten eguna antolatu.

Landa eremuko auzoak

- » Auzoak biziberritzeko plan estrategikoa.
- » Auzoak eta herria lotzeko garraioa.
- » Matxinbenta: taberna aurreko plaza, frontoi atzeko aparkalekuaren seinalizazioa eta hilerrirako bidea egokitu.
- » Arriaran: urtegirako bidea eta jolas parkea konpondu.
- » Astigarreta: telefonoa eta internet zerbitzua.
- » Beasainmendi: ureztatze-ahoaren instalazioa.

Ingurumena

- » Energia efizientzia eta kaleko argiztapena.
- » Agenda 21eko foroa berrabiarazi.
- » Biodibertsitatea babestu.
- » Mendiko pistak txukundu.
- » Hondakinen kudeaketan aurrerapausoak eman.
- » Bidegorriaren adarkatzea.

Los tres ejes principales del presupuesto del Gobierno Municipal de 2014 son las personas (garantizar ayudas y servicios), la sostenibilidad urbanística y la participación ciudadana. Ahora, el objetivo del Gobierno Municipal es llegar a acuerdos con el resto de partidos políticos, introduciendo sus diferentes aportaciones.

El Gobierno ha elaborado el borrador del presupuesto, recogiendo aportaciones del proceso de participación. Algunas de las ideas son las siguientes.

Bienestar: Informar a la ciudadanía sobre los servicios sociales y organizar talleres de prevención-estimulación para las personas de la tercera edad, talleres de motivación para la juventud, y programa de acompañamiento para personas adultas.

Urbanismo: Mejorar Nafarroa Etorbidea, la rotonda de Barrendain, Oriamendi y el hogar de jubilados, elaborar un diagnóstico para renovar el Plan General del municipio e iniciar el proceso de Olaran.

Euskara y Cultura: Promocionar la creatividad local, impulsar las relaciones entre diferentes asociaciones y organizar una jornada dedicada a las asociaciones culturales.

Barrios de la zona rural: Elaborar un plan estratégico para revitalizar los barrios rurales, y crear una línea de transporte público para unir los barrios con el centro.

Medioambiente: Eficiencia de la energía y la iluminación urbana, defender la biodiversidad y reactivar el foro de Agenda 21.

Antzerki Garaia

Urtarrilaren 10ean hasiko da Beasaingo Udalak Ordiziako Udalarekin elkarlanean antolatzen duen Antzerki Garaia. Apirila bitartean, 8 antzezlan ikusi ahal izango dira: 4 Beasainen eta 4 Ordizian. Lehenengo saioa, Ordizian izango da, urtarrilaren 10ean, Ados Teatroa taldearen **Figuranteak**, eta bigarrena Beasainen **24an, Glu Glu Producciones taldearen La última oportunidad**. Denboraldi osorako abonua 60 euroan daude salgai.

El 10 de enero se estrenará la nueva temporada de Tiempo de Teatro (organizado por los Ayuntamientos de Beasain



y Ordizia) con la obra *Figuranteak* en Ordizia. El 24 de enero, Glu Glu Producciones representará la obra *La última oportunidad* en Beasain.

1. hiruhilekoaren zergen egutegi fiskala

Otsailaren 28ra bitartean ordaindu beharko da 2014ko **Azoka Zergari** dagokion lehen hiru hilekoa. Otsailaren 1etik martxoaren 31ra, berriz, **Trakzio Mekanikodun ibilgai-luen Zerga** ordaindu beharko da.

Antes del 28 de febrero el Ayuntamiento cobrará el 1er trimestre de la **Tasa de Mercado**, y entre el 1 de febrero y 31 de marzo, la tasa correspondiente al **Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica**.

Zaldizurretako konposta gunea martxan

Zaldizurretako auzokonposta gunea martxan dago inguruan bizi diren 9 familiarekin. Beste konpostagune bat jartzeko aukera badagoenez, Beasaingo Udalak eta Sasietak herritarrak animatu nahi ditu konposta egitera. Horretarako Sasietara deitu behar da: 943-161555.

El Ayuntamiento de Beasain y Sasieta han instalado el punto de compostaje comunitario en Zaldizurreta, y 9 familias ya han empezado a utilizarlo para depositar la materia orgánica. Desde Sa-



sietta y el Ayuntamiento quieren animar a más vecinos (943-161555), ya que hay sitio para instalar otro compostador.

Hobaria familia ugarietzat, IB-Ian

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren hobaria izango dute familia ugariak. Urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira eskariak Harrera bulegoan.

Las Familias Numerosas recibirán bonificaciones en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Las solicitudes se deberán presentar antes del 31 de enero, en la Oficina de atención del Ayuntamiento.

Udal Euskaltegian matrikulazioa zabalik

Noiz: Urtarrilaren 13tik 24ra.

Non: Beasaingo Udal Euskaltegian.

Informazioa:

Tel.: 943028100

e-posta: euskaltegia@beasain.net

Ikastaro eskaintza:

- + Euskalduntze (1., 2. eta 3. mailak) eta Alfabetatze ikastaroak.
- + EGA, HABE eta Hizkuntza eskakizunetarako azterketak prestatzeko ikastaroak.
- + Autoikaskuntza.
- + Sektore desberdinentzako ikastaro bereziak.
- + Hizkuntza erabilera bultzatzeko ikastaro laburrak.
- + Mintzalaguna.

Cuándo: Del 13 al 24 de enero.

Dónde: En el Euskaltegi Municipal de Beasain.

Información:

Tel.: 943028100

e-mail: euskaltegia@beasain.net

Oferta de cursos:

- + Cursos de euskaldunización (niveles 1, 2 y 3) y Alfabetización.
- + Cursos para preparar los exámenes de EGA, HABE y Perfiles Lingüísticos.
- + Autoaprendizaje.
- + Cursos específicos para diversos sectores.
- + Mintzalaguna.

Iñaki Azurmendi Peñagarikano Aizkolaria

«Egindako sakrifizio guztia ahaztu egiten da txapela irabazitakoan»

Iñaki Azurmendi (Beasain, 1972) aizkolaria da pasioz, eta harakina ogibidez. Orain 20 urte hasi zen aizkora Arrospiderek «erdi jolasean» etxe inguruan eta bigarren aldiz lortu berria du Euskal Herriko aizkora txapelketa.

Bigarrenez irabazi duzu txapela, gainerakoei tarte handia ateraz.

Disfrutatu egin nuen. Irabazten ari nintzen momentu hartaz gozatzeko aukera izan nuen eta asko gozatu nuen amaierara arte. Inongo lesiorik ez dut orain eta aurrera segitzeko gogoz nago. Datorren urteko txapelketan ere parte hartzeko asmoa daukat, ondo banaiz behintzat.

Zeren ondorio izan da txapela?

Ondo prestatu dut txapelketa hau. Gipuzkoako txapelketa ezin izan nuen



Iñaki Azurmendi.

ondo prestatu, lesio baten erruz, baina oraingoa ondo preparatuta eraman dut etxetik. Etxeko saioetan ondo ikusten nintzen, ondo prestatuta nengoen, eta zorte pixka batekin irabazteko aukerak ikusten nituen.

Zer eman eta zer kendu dizu txapelak?

Kendu baino, eman gehiago egin dit. Kendu, ondorengo astean denbora pixka bat: prentsa, kunplitu beharrekoak... Normala eta beharrezkoa ere bada. Sakrifizioa ere dezente: entrenamenduetan pixka bat sufritu beharra dago, ordutegiak, jana... Baina hori guztia ahaztu egiten da horrelako bat lortutakoan. Ematen duen poza izugarria da, gainera, kasu honetan bezalako aldearekin irabazitakoan, beste bat irabazteko motibazioa ematen du.

Aitor Sarriegi Galparsoro Bertsolaria

«Gorenera iritsi naizenik ez nuke pentsatu nahi»

Aitor Sarriegi (Beasain, 1976) irakaslea eta IKTen dinamizatzailea da Urretxu-Zumarragako ikastolan eta bertsolaritzari eskaintzen dio bere denbora libre. Etxetik ekarritako afizioa 1989an hasi zen plazaratzen, lehen eskolarteko txapelketan, eta aurten bosgarren aldiz parte hartu du Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian, bosgarren postua lortuz. Gipuzkoan ere bost aldiz parte hartu du, horietako batean txapela lortuz.

Gorenera iritsi al da Aitor?

Ez nuke pentsatu nahi. Hona iritea zaila izan da, beraz, gorago iritea oraindik ere zailago. Gainera, norberak bakarrik ez du jokatzeko. Halere, nekatuta nago txapelketetaz.

Zeure buruarekin gustura gelditu zinen?

Hobetzeko tarte utzi nuela uste dut. Ondo ibiltzen naizen gauzetan nahi baino okerrago ibili nintzen, baina, asmatzen ez dudun gauzetan asmatu nuela iruditu zitzaidan. Espero nuenaren ezberdin atera zen, onerako eta txarre-rako.

Zer eman eta zer kendu dizu bertsolaritzak?

Kendu, denbora asko eta osasun pixka bat ere bai. Deskantsua ere kendu dit. Eta eman berriz, jende asko, jende interesgarri asko ezagutzeko aukera; herriak edo lekuak ezagutzeko aukera; errealitate ezberdinak ezagutzeko. Eta herri honen parte aktibo sentitzeko aukera ere eman dit.



Aitor Sarriegi.